

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Apirilak 9  
Asteazkena  
Alea: 740  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



Hernaniko bulegoan jendea ari da Errenta Deklarazioa egiten. Atzorako 180 lagunek txanda hartuta zuten.

## Aurten 8.300 Errenta deklaraziotatik 6.500 kobratzera aterako dira Hernanin

■ Kobratzea egokituko zaienek 950 euro jasoko dute batez beste, eta ordaintza egokituko zaienek, bataz beste 1.550 euro emango dizkiote Haziendari ■ Txanda hartzeko: ☎ 902 100 040 edo [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net).

ERRENTA eta Ondarearen Deklarazioa aste honetan hasi da Gipuzkoan. Antton Market Hazienda Diputatuak emandako datuen arabera, Gipuzkoa osoan 325.000 deklarazio izatea espero da aurten, eta horietatik 10tik 8 kobratzera aterako dira.

Hernaniarrek 8.300 inguru deklarazio egingo dituzte, eta 6.500 kobratzeoak izango dira. Dirua bueltan jasoko dutenak, batez beste 950 euro kobratuko dituzte. Haziendako Diputatuak adierazi zuenez, deklarazio mekanizatua egiten dutenek sei egun barru kobratuko dute. Beste formulak erabiltzen dituztenek, berriz, ekainaren 15erako egiten dutenek ekainaren 30erako jasoko dute.

Haziendari ordaintza egokituko zaien 1.800 deklarazioi dagokionez, berriz, bakoitzak 1.550 euro ordaindu beharko ditu, batez beste. Haziendak berak kenduko dio kontutik ekainaren 25ean, eta ordainketa bi puske-

### HERNANIKO OFIZINA

Eskualde guztiko jendeak Hernaniko ofizinan egiten du Deklarazioa.

Bulegoa Latsunben dago, 8-9 zenbakian (kiroldegia atzean), eta goiztan dago zabalik, 08:00-14:00.

razioei dagokionez, berriz, bakoitzak 1.550 euro ordaindu beharko ditu, batez beste. Haziendak berak kenduko dio kontutik ekainaren 25ean, eta ordainketa bi puske-

tan ere egin liteke, ekainean eta azaroan.

Dedukzioak etxebizitza alkilerrean jartzeagatik Aurtengo kampaianan nobedadeetako bat izango da etxebizitzak alkilerrean jartzen dituzten etxe-jabeei dedukzioak aplikatzea.

Aurten onartutako IRPF-aren aldaketak datorren urteko kampaianen eragingo du.

Edozein informazio nahi izan ezkerro, Haziendak honako telefono hau jarri du herritarren eskura: 902 100 040. Bestalde, Errentari buruzko informazio guztia, eskuliburua, prozedurak eta abar interneten jarri ditu Diputazioak: [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net).

Eskualde osokoak Hernanin Errenta Aitorpen mekanizi

### DEKLARATU BEHARRIK EZ

18.400 euroz azpi-ko errentek ez dute Deklarazioa egin beharrik, non eta ez duten 1.535 euro baino gehiago kapital errendimendurik.

zatuak egiteko eskualde guztiko herritarrek Hernanin dute bulegoa. Iaz, Andoain, Larrarte, Urnieta, Astigarraga eta Hernaniko 14.000 deklarazio mekanizatua egin ziren Latsunbeko bulegoan, aurreko urtean baino 500 gehiago. □

### IRAKEKO GERRA

**Mikel Aramendik Estatu Batuek historian egin dituzten erasoei buruz hitz egingo du gaur Biterin**

IRAKEKO gerra dela eta bi hitzaldi antolatu ditu Udaleko Elkartsun Taldeak. Gaur Mikel Aramendik hitz egingo du Ameriketako Estatu Batuek historian egin dituzten erasoei buruz. Hitzaldiaren izenburua da: *AEB-ak. Etengabeo eraso baten historia*. Gaur 19:30etan Biterin. □

### HERNANI INSTITUTUA

**Institutua zabalik egongo da gaur ikusi nahi duenarentzat**

GURASO, enpresa eta ikastetxeen instalazioak erakusteko eguna du gaur Hernani Institutuak. Ateak zabalik izango ditu Agustin Iturriagan eta Karmelo Labakan, arratsaldeko 18:30etan. Interesatua azaltzeko deia egin du Hernani Institutuak. □

### Bandaren kontzertua, ostiralean Biterin

HERNANIKO Bandak *Moderno klasikoak* kontzertua emango du ostiralean. Zuzendaria Zipri Otxandorena izango da, eta Kantuz eta Ozenki abesbatzek ere parte hartuko dute. Kontzertua, arratsaldeko 20:00etan da, Biterin. □

### HAUR ESKOLA

#### Hitzaldia ostiralean

DATORREN ostirala, hilak 11, hitzaldia dago Biterin, 0-3 urte arteko umeek adierazi nahi dutena interpretatzeko ikasteko. Hitzaldia Rafa Cristobal Mondragon Unibertsitateko adituak emango du eta gurasoentzat da. ostiralean 19:15etan. □



**LARRE-GAIN**  
Tolare-Sagardotegia  
Asteartetik igandera zabalik.  
Ostiral eguerdian enkarguz.  
Zatoz sagardo berria edatera!  
Sagardo naturala urte osoan botilan salgai

**ITXASPE**  
ARRANDEGIA  
Antziola 5 - Tel. 943 330 365  
Mobila: 653 74 10 97  
20120 HERNANI

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA  
Eguneroko ogia beti Bikain...

Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89  
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42  
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87  
20120 HERNANI



Plaza Berriko erredakzio berrian, kazetari talde bat lanean.

## Egunkariaren aldeko festa egingo da datorren larunbatean Hernanin

■ Arratsaldeko 17:00etan hasiko da festa bizikleta martxarekin ■ Gero kalejira, jaialdia eta ekitaldia daude, Plaza Berrian.

EGUNKARIAREN aldeko festa antolatu du datorren larunbaterako Hernaniko Egunkariaren Aldeko Batzordeak. Egunkaria eta euskeraren alde izango da festa eta arratsalde guztian izango dira ekitaldiak, Plaza Berrian.

Batzordea Egunkariaren kontrako operazioaren ondoren sortu zen eta bere helburu nagusia Egunkaria hartuko duten harpidedunak egitea izan

da. Helburua 200 harpidedun egitea da eta dagoeneko 100 eta gehiago harpidedun berri egin dituzte Hernanin.

**Egunero Hernanin**  
Egunero, Euskaldunon Egunkariaren ordezko egunkaria, Hernanin egiten da orain, Plaza Berrian bertan. Egunkariaren Andoaingo egoitza itxi eta prezintatu zutenean erredukzioa Hernanin jarri zuten.


### EGITARAUAK

17:00etan bizikleta martxa, Plaza Berriatik aterata.

18:00etan, kalejira herriko musikariekin.

19:00etan Jaialdia: abeslari, abesbatza, txalapartari, dantzari, bertsolari...

20:00etan Ekitaldia.



Ricardo Serrano Valladolide jaio eta Hernanin bizi da.

## Ricardo Serrano txirrindularia Euskal Herriko Itzulian

■ Dagoeneko azaldu da lehen portuetan, goiko muturrean ■ Valladolideko txirrindularia Ereñotzun bizi da.

RICARDO Serrano Gonzalez Hernanin bizi den txirrindulari gaztea Euskal Herriko Itzulia korritzen ari da. Serranok aurreneko urtea du profesionalen eta *Labarca 2-Café Baqué* taldean dabil. Serranok berea egin du lehenengo etapetan, eta mendiko mailota oraingoz berak daramaki. Badirudi, txi-

rrindulari gaztea Mendiko Sa-riaren bila atera dela bere lehenengo Itzulian.

Serrano Valladolideko da izatez, baina, azken 7 urtetan Ereñotzun bizi da. Bere hitzean hemen maila eta aukera hobeak zeudelako etorri zen eta aurten hartu dute profesionaletan. □

## AEK gustora aurtengo Korrikak Hernanin izan duen erantzunarekin

■ Korrikak 3.000 lagun mugitu ditu Hernanin eta 30 km saldu dira.

HERNANIKO AEK-k oso balorazio ona egin du aurtengo Korrikak herrian izan duen erantzunarekin. Antolatzailen hitzetan Korrika gaztean 400 bat gazte ibili dira, korrika txikian 1.300 bat, bizikleta martxan 40 bat lagun eta Korrikan bertan jendez lepo egon da herria. Hernanin 30 kilometro saldu ditu AEK-k eta Korrika etorri den unea jendetzuaz gainera hunkigarria izan da antolatzailen adierazi dutenez, gehien bat axeri dantza-

ri egin zaion omenaldiko unea. Korrika aurreko afariak ere arrakasta haundia izan zuen eta 200 bat lagun bildu ziren soziedadeek jarritako afarian, Tilosetan. Epaileen iritziz, arrizoparik onena Elur-Txorik egin zuen eta Haragi gisaturik onena Peña Otañok.

**Jende askorengana iristea**  
Aurtengo helburuetako bat jende askorengana iristea zen, AEKtik adierazi dutenez. Korrikan eta Korrikaren bueltan

antolatutako ekintzatan lortu dute hori: empresas dirua ematen, jendea eta taldeak Korrikan, banakoak Korrika kulturaleko ekintzatan eta bonoak hartzen, elkartea gastronomikoak herri afaria preparatzetan eta abar. AEK-k eskerrak eman dizkie; bereziki soziedadee, afaria jartzen egindako lanagatik eta udalzaingoari, trafikoa zuzentzen egindako lanagatik. AEK-k dei egin du igandean Iruñara joateko, Korrika bukaerako ekitaldira. □

## Berako Musika Eskolako musikariak ostiralean, Sandiusterrin

HILEROKO Musika Eskolak eta Hezkuntza Batzordeak kontzertua antolatzen dute. Datorren

ostiralean Berako Musika Eskolak emango du kontzertua, arratsaldeko 19:00etan. □

### LANGILE IKASTOLA

## Bai Euskarari akordioari buruzko hitzaldia gaur, Laubidietan

LANGILE Ikastolako Euskara Batzordeak hitzaldia antolatu du gaurko Bai Euskarari Akordioari buruz. Hitzaldiaren izenburua da Bai Euskarari Akordioa: helburuak eta konpromisoak. Hitzaldian

gaur arratsaldeko 19:00etan da, Laubidietan, ikastolako jangelan.

Langile Ikastolako Euskara Batzordeak gai horren inguruan interesa duten guztiek gonbidatu ditu. □

### JASOTA BEZALA

#### DONOSTIAKO BIGARREN ZINTUROIA

Aurreko ostegunean hemen, Kronikan, Donostiako Bigarren Zinturoiari buruzko informazioa irakurri nuen eta neuk ere Zinturoi horri buruzko zeozer esan nahi nuke.

Hasteko, errepidetxo berri hori txikia edo, hobe esanda, es-tua izango dela uste dut. Denok daukagu kotxe bat erosteko esku-bidea, eta planetako biztanleria eta honen hazkunde kontuan

hartzen baditugu, konturatuko gara "bi karril sentitu bakoitzean izango dituen" errepide bat oso eskasera gertatuko zaigula. Beraz, gutxienez, lau karril sentitu bakoitzean eskatzen ditut. Bestalde, zuzen zuzena izan behar du errepide horrek. Bestela, 250 kilometro orduko abiadura nekez hartuko digu kotxeak. Izan ere, kotxe "turbo-injection-canals-plus" erosia eta gero, ez da normala 120an ibiltzea. Esan bezala, zuzena izan behar du eta Chi-

llida-Leku aurretik pasa ordez, Chillida-Leku erditik joan behar du. Bai, badakit Artea garrantzi-sua dela, baina, ez al da kotxea mundu honen erregea?

Eta bukatzen, proiektuan ikusi dut Zinturoiak ez duela lotura zuzenik nire portalarekin. Hori barkaezina da. Exijitu egiten dut lotura zuzen bat etxetik lanera, edo etxetik Donostiarra, edo etxetik Pekinera denbora galdu gabe joan ahal izateko.

Jose Luis Gómez

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

Taxiak:	943 550093
Udalzaingoa:	943 333288
DYA:	943 464622
Autobusak:	943 556662
Anbulatorioa:	943 006666
Jokalarri anonimoak:	943 331103

#### FARMAZIAK

Egunez:	Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
Gauzez:	Gorospe Andoain. Rikardo Arregi 12 ☎ 943 592415

### IRAGARKI MERKEAK

Haur ra zaintzeko neska euskalduna behar dugu, Ordutegia: Astelehenetik larunbatera 8:00etatik 16:00etara. Deitu: 943 55 20 98 (20:00etatik 21:00etara)

Pertsona bat behar da jatetxe bateko sukaldean laguntzeko. Kotxa edo motoa behar ditu. Interesatuek deitu: 943 55 64 81

Arotz profesionalak etxeko lan txikia egingo lituzke Hernani inguruan. Behar badezu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)